

TXANELA 5 – Ura, bizitzaren iturri

1) Bideoa ikusi eta erantzun galderei.

- Nola deitzen zaio duela milioika urte espazioan gertatu zen leherketari?

Bang Bang

Big Beng

Big Bang

Espazioko leherketa izugarria

- Noiz egin zuen eztanda?

Duela 15.000 urte inguru.

Duela 15 milioi urte inguru.

Duela 15 mila milioi urte inguru.

2) Ordenatu bizitzaren sorrera azaltzen duten ekintzak.

1

Lur planetaren lurrazala gogortu egin zen baina barrualdeak bero egoten jarraitu zuen.

2

Sekulako euritea egon zen eta Lurra urez estali zen.

3

Lurra suzko bola lehorra eta beroa zen.


4

Lurraren barruko beroa sumendien bitartez kanporatu zen gasezko geruza bat osatuz.

5

Espazioan leherketa bat sortu zen eta galaxiak, izarrak eta planetak sortu ziren, baita Lur planeta ere.

3) Kokatu ozeanoen eta kontinenteen izenak dagokien tokian.



4) Planetaren zatiak. Zeri buruz hitz egiten da definizio bakoitzean?


Gure planeta inguratzen duen gasezko geruza da →

Lurraren atal solidoa da, harrizkoa, kontinenteek osatzen dutena →

Gure planetan dagoen urak osatzen duen zatia →

5) Bete ezazu ondorengo mapa kontzeptuala. Aukera bat baino gehiago dagoen kasuetan alfabetikoki ordenatuta kokatu itzazu.






6) Irakurri urarekin loturiko gertaera hauek eta bete hutsuneak erantzun egokiekin. Batzuetan zuk idatzi beharko dituzu eta beste batzuetan aukeratu.

- Ura hiru egoeratan aurkitu dezakegu: _____, _____ eta _____.
- Glaziarretako ura _____ egoeran dago, itsasokoa _____, eta atmosferakoa _____ da.
- Urez beteriko botila bat izozkailuan sartzean botilako ura _____ egiten da. Orduan, ura egin dela esaten dugu.
- Izotza _____ egiten da tenperatura _____ denean.
- Ur likidoa irakiten jartzen dugunean, likidoa _____ bihurtzen da, eta _____ egin dela esaten dugu.
- Tenperatura _____ denean, lurrina likido bihurtzen da, hau da, _____ egiten da.
- Ura disolbatzaile ona da. Uretan ondo disolbatzen diren materialak _____ dira, eta disolbatzen ez direnak _____.
- Olia eta ura nahastean, olia _____ geratzen da. Disolbatu da?
- Arroza eta ura nahastean, arroza _____ geratzen da. Disolbatu da?
- Azukrea eta ura nahastean, azukrea _____ geratzen da. Disolbatu da?

7) Kokatu irudian euriaren zikloarekin erlazionatutako kontzeptu eta azalpenak.



Beroarekin mendietako elurra eta izotza urtu egite da.

Eguzkiaren beroarekin ura lurrundu eta zerura joaten da.

Hodeietan lurruna kondentsatu egite da eta euria sortzen da.

LURRUNDU

KONDENTSATU

Tenperatura oso hotza denean, hodeietako euria solidotu egiten da, elurra edo txingorra sortuz

Ur guztia itsasora bueltatzen da eta zikloari hasiera ematen zaio berriro.

SOLIDOTU

URTU

8) Ibaiek egiten duten ibilbidea. Erantzun galderak eta bete taula.

- Nola deitzen zaio ibaiek jaiotzen direnetik itsasoratu arte egiten duten ibilbideari?

Ibilbidea

Ibilgailua

Ibilgua

Ibaiaren bidea

- Ibaiek paisaia aldatzen dute ?

BAI

EZ

- Nola deitzen zaio paisaiak izaten duen forma aldaketari?

Aldaketa

Higidura

Higadura

Puskatzea

- Zer gertatzen da zati bakoitzean? Aukera bat baino gehiago daude.

Goi-ibilgua

Aldapa gutxi edo aldaparik ez

Aldapa txikiagoak

Aldapatsua

Materialak garraiatu

Materialak pilatu

Ura azkar

Ura motel

Ura moteltzen

Erdiko ibilgua

Aldapa gutxi edo aldaparik ez

Aldapa txikiagoak

Aldapatsua

Materialak garraiatu

Materialak pilatu

Ura azkar

Ura motel

Ura moteltzen

Behe-ibilgua

Aldapa gutxi edo aldaparik ez

Aldapa txikiagoak

Aldapatsua

Materialak garraiatu

Materialak pilatu

Ura azkar

Ura motel

Ura moteltzen

9) Zeri egiten dio erreferentzia definizio bakoitzak? Idatzi erantzuna.

Zazpi kolore dituen ilusio optikoa →

Solido egoeran dagoen urari esaten zaio →

Gaur egun gure planetan dagoen kutsatzaile nagusia →

10) Esan baieztapen hauek egia ala gezurra diren.

- Duela milioika urte kontinente guztiak elkartuta zeuden.
- Fruta eta barazkietatik ura lortzen dugu.
- Gorputzak ez digu eskatzen urik, guk nahi dugunean edaten dugu.
- Ibai bateko ur kantitateari ibilgua esaten zaio.
- Lurra esfera bat da.
- Ostadarra eguzki izpiek euri tantak zeharkatzen dituztenean sortzen da.
- Ostadarrak benetan existitzen dira.
- Planetaren %75a urez osatuta dago.
- Prezipitazioa hodeietatik erortzen den euriari bakarrik esaten zio.
- Ura urdin kolorekoa da.
- Urak ez du ez usainik ez zaporerik.
- Uraren zikloa behin eta berriz errepikatzen da.
- Uretara begiratzen badugu, bertan islatzen dena eta beste aldean dagoena ikus dezakegu.
- Urik edan gabe ezingo ginатеke denbora luzez egon.